




PORTUGALETEKO EMAKUME ETA GIZONEN BERDINTASUNERAKO V PLANA 2020 -2024



Ayuntamiento de
Portugaleteko Udala



EMAKUNDE
EMAKUMEAREN EUSKAL ERAKUNDEA
INSTITUTO VASCO DE LA MUJER




EMAKUMEEN ETA GIZONEN BERDINTASUNERAKO V. PLANA 2020 – 2024 PORTUGALETE

1.	PLANAREN IKUSPEGIA	3
2.	ESPARRU TEORIKOA ETA LEGE ESPARRUA.. .. .	5
3.	PLANAREN EZAUGARRIAK.. .. .	14
4.	HOBETZEKOAK	15
5.	EKINTZA PLANA 20-24.. .. .	17
6.	PLANAREN KUDEAKETA, EBALUAZIOA ETA JARRAIPENA	27

1.PLANAREN IKUSPEGIA

Emakumeen eta gizonen berdintasunerako Portugaleteko V. Plan honen erreferentzia nagusiak Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako EAEko VII. Planeko printzipio eta lan estrategiak dira.



Gobernu ona

Gobernu ona oso lotuta dago ekonomiaren, gizartearen eta ingurumenaren arloak kudeatzen eta arlo horietan aurrera egiten duen gobernagarritasun-eredu batekin; horretarako, genero-ikuspegia alderdi hauetan txertatzen du: gardentasunean, herritarren parte-hartzean, elkarlan publiko-pribatuko formula berriak aztertzeke eta praktikatzeko beharrean, administrazioen arteko elkarlanean eta politika publikoen ebaluazioaren jardunaren sustapenean, horiek hobetzeko eta helburuak lortzera bideratzeko. Azken batean, berdintasunean oinarritutako eredu batera igarotzean datza, eraginkortasuna, gardentasuna, kontuak ematea eta gizarte zibilaren parte-hartzea baliatuz.

Emakumeen ahalduntzea

2015ean Nazio Batuetako estatu kideek onartutako Garapen Jasangarrirako Helburuen bidez eta 2030erako Mundu Agenda berriaren bidez, lortu nahi da XXI. mendearen bilakaera aldatzea, bizitzaren eremu guztietan dauden desberdintasunak, pobrezia eta emakumeen aurkako indarkeria ezabatuz. Hala ere, NBE Emakumeak erakundeak esaten duenez, alderdi horietako bat ere ezin da hobetu emakumeak ahaldundu gabe; hau da, ahalduntzea betekizun eta berme bat da emakumeen eta gizonen berdintasunaren alde munduan egin behar den eraldaketa sozialerako.

Ekonomiak eta gizartearen antolamendua eraldatzea eskubideak bermatzeko

Nazio Batuen Erakundeak adierazten duenez, ekonomiak eraldatzeko eta eskubide ekonomiko eta sozialak gauzatzeko, beharrezkoa da hiru lehentasunezko eremutan ekitea: hots, emakumeentzako lan duinean, genero-ikuspegia duten gizarte-politiketan eta eskubideetan oinarritutako politika makroekonomikoetan. Politika ekonomiko eta sozialek beren agendetan emakumeen eskubideak jartzen badituzte, horrek giza garapen jasangarriari laguntzen dio, eta horregatik proposatzen da lan-ardatz hau, zeinak NBEk –bide hori posible egiteko– aipatzen dituen lehentasunei heltzen baitie.

Horren haritik, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Erakundearteko Batzordearen 2016ko uztailaren 21eko Erabakiak azaltzen duenez, beharrezkoa da eztabaida publiko bat sustatzea, egungo eredu ekonomikoari buruz eta horrek pertsona guztien eskubideak bermatuko dituen garapen iraunkor batean duen eraginari buruz.

Indarkeria matxistarik gabeko bizitzak

Emakumeen aurkako indarkeria giza eskubideen urraketa larria da. Gizonek emakumeen aurka emakume izateagatik baliatzen duten indarkeria da, eta hala baliatzen da genero-diskriminazioen ondorioz eta gizarte-eredu ez-pareko eta hierarkiko honetan gizonek emakumeekiko duten boterearen ondorioz, emakumeak mendekotasun-egoeran baitaude haiekiko.

Emakumeen aurkako indarkeriatzat hartzen da generoan oinarritutako indarkeria oro, zeinak berekin dakarren edo ekar dezakeen emakumeek kalte edo oinaze fisikoa, sexuala, psikologikoa eta ekonomikoa jasatea, baita mehatxuak, bortxa eta askatasun-gabetze bidegabeak ere, bizitza publikoan edo pribatuan.

2. ESPARRU TEORIKOA ETA LEGE ESPARRUA

Azkeneko urteotan lege eta arau juridiko franko onetsi da hala nazioartean nola Europan, estatuan eta udalerrietan, horien guztien xedea izanik esanbidezko aitorpena egitea emakumeen eta gizonen aukera berdintasunerako eskubideari. Horiek horrela, berdintasun plan honek nolabaiteko babes zabala eskaini nahi du erakunde eta lege mailan.

Hona hemen genero politiken hainbat mugarri legezko eta teoriko:

- Apirilaren 2ko 7/1985 Legea, Toki Jaurpideko Oinarriak Arautzekoa (2003ko abenduaren 21ean eguneratua)
- EAEko Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako otsailaren 18ko 4/2005 Legea
- Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako EAEko VII. Plana
- Bizkaiko Foru Aldundiaren Berdintasunerako I. Foru Plana (2000-2003)
- Ekainaren 20ko 4/2018 Foru Araua, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerakoa, Bizkaiko Foru Aldundiak bultzatua eta Bizkaiko Batzar Nagusiek onartua
- Lanean eta enpleguan emakume eta gizonen arteko aukeren eta tratabideen bermerako premiazko neurriei buruzko martxoaren 1eko 6/2019 Errege Dekretua
- Aukeren Berdintasunaren aldeko Estatu Plana (2018–2021)
- Europako Gutuna Emakumeek eta Gizonen Tokian Tokiko Bizimoduan izan behar duten berdintasunerako

Apirilaren 2ko 7/1985 Legea, Toki Jaurpideko Oinarriak Arautzekoa (203ko abenduaren 21ean eguneratua)

Lege horretako 28. artikulua ezartzen du udalek eskumena dutela beste herri administrazioek egiten dituzten jardueren jardura osagarriak egiteko, batez ere hezkuntza, kultura, emakumeen sustapen, etxebizitza, osasungintza eta ingurugiroaren babes eremuetan. Horiek horrela, garbia da Toki Administrazioaren protagonismoa, legeak esku hartzeko tarteak uzten baitie udalei hainbat jardura sustatu dezaten eta zerbitzu publikoak eskaini ditzaten, horren helburua delarik generoaren esparruan

herritarren beharrianak eta asmoak asebetetzea, beti ere beste herri administrazioen eskumenak galarazi eta oztopatu gabe.

EAEko Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako otsailaren 18ko 4/2005 Legea

Lege horrek argi eta garbi definitzen du emakumeen eta gizonen berdintasun alorrean zein zeregin dagokion administrazioaren maila bakoitzari, eskumenei dagokienez beti ere abiapuntu izanik honako lege testuak: Autonomia Estatutuko 10.39 atala; Lurralde Historikoen Legeko 6 eta 7.c.2 atalak; eta, oro har, aginte publiko guztiei emakumeen eta gizonen berdintasuna benetakoa eta eragingarria izan dadin baldintzak sustatu, oztopoak kendu eta berdintasuna politika eta ekintza guztietan bultzatu beharra ezartzen dieten Estatutuko (9.2 atala) eta Europar Batasuneko arauak (Europar Batasuneko Tratatuko 3.02 atala).

EAEko Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako otsailaren 18ko 4/2005 Legeak zeregin hauek agintzen dizkio Toki Administrazioari:

- Azpiegiturak, programak eta prozedurak egokitu eta sortzea, genero-ikuspegia beren administrazioan integratze aldera.
- Toki-eremuan ekintza positiboko neurriak egikaritzea.
- Toki-eremuan programak egitea, Jauralaritzaren plangintza orokorraren esparruaren barruan eta foru-aldundiek egiten dituzten programen esparruaren barruan.
- Estatistikak egokitu eta eguneratzea, horien bitartez toki-erakundeek eskumenekoak diren eremu guztietan emakumeek eta gizonen bizi dituzten ezberdintasun-egoerak ezagutu ahal izateko.
- Toki-eremuan, emakume eta gizonen egoerari buruzko azterlanak eta ikerketak egitea.
- Toki-eremuan, emakumeen eta gizonen ezberdintasun-egoerari buruz eta berdintasuna sustatzeko abiarazi behar diren neurriei buruz sentsibilizazio-jarduerak egitea.
- Toki-araudia nolakoa den eta nola aplikatzen den begiratzea, emakumeen eta gizonen berdintasun-printzipioaren arabera.
- Herritarrei, eta batez ere emakumeei, informazioa eta orientabidea ematea emakumeen eta gizonen berdintasunarekin zerikusia duten baliabideei eta programei buruz, bai eta bereizkeria anizkoitza jasaten duten emakumeei oinarritzko gizarte-eskubideetarako sarbidea bermatzeko zuzendurik dauden programa eta zerbitzuei buruz ere.
- Bereizkeria anizkoitza jasaten duten emakumeek oinarritzko gizarte-eskubideetarako sarbidea izan dezaten programak osatzea edo zerbitzuak ematea, zerbitzuon izaera dela-eta udal mailan eman beharrekoak direnean.

- Emakumeei eta gizonei bizitza pertsonala, familia eta lana uztartzea helburu duten baliabide eta zerbitzu soziokomunitarioak ezartzea, beren izaera dela-eta udal-mailan eskaini beharrekoak direnean.
- Erakunde publiko zein pribatuekin harremanak finkatzea eta partaidetza eta lankidetzarako bideak ezartzea, baldin eta erakundeon xedeek edo eginkizunek toki-eremuan emakumeen eta gizonen berdintasuna erdiesten laguntzen badute.
- Toki-eremuan sexuaren zioz gertatzen diren bereizkeria-egoerak antzematea, eta egoera horiek errotik kentzeko neurriak hartzea.
- Bakoitzari bere eskumenen eremuan agindu dakioken beste edozein eginkizun betetzea.

Legeak lau funtzio oinarritzko ezartzen ditu Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako EAEko V. Planaren diseinuaren eta egituraren gainean:

- Planaren betearazterakoan herri aginteen jarduna arautu behar duten printzipio oinarritzkoak ezarri (Legearen atariko titulua).
- Euskal herri aginte eta administrazioek beren jardunean genero-ikuspegia txertatzeko neurri multzoa arautu (I. eta II. tituluak).
- Esku hartu beharreko arlo guztietan berdintasuna sustatzeko neurriak egituratu (III. titulua).
- Zigorrak arautu (IV. titulua).

Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako EAEko VII. Plana

Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako EAEko VII. Planaren xedea botere publikoak gidatzea da, bizitzaren arlo guztietan emakumeen eta emetasunaren mendekotasuna mantentzen eta justifikatzen duten balioak aldatzeko; balio horiek gizonak ere mugatzen dituzte, nahiz eta oraindik botere-egoeran egon, patriarkatuak haien bizitzak ere baldintzatzen baititu, unibertsala da eta.

Balio aldaketa hori ezinbestekoa da giza garapen jasangarrirako, eta berekin dakar hainbat balio berri sortzea eta finkatzea, zeinak ez diren androzentrismoaz, sexismoaz eta matxismoaz zeharkatuta egongo; aitzitik, emakumeen eta gizonen berdintasuna, emakumeen giza eskubideak eta herritarren sustapena garatzea eta txertatzea ahalbidetzen duten printzipio filosofiko, etiko eta politikoen zeharkatuko dituzte.

Oinarri hartuta Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako 4/2005 Legean jasotako berdintasunaren printzipioa eta arau horren arabera euskal botere publikoen jarduna arautu behar duten printzipio orokorrak (tratu-berdintasuna, aukera-berdintasuna, aniztasunarekiko eta desberdintasunarekiko errespetua, genero-ikuspegia txertatzea, ekintza positiboa, sexuaren araberako rol eta estereotipoak

deuseztatzea, ordezkaritza orekatua eta koordinazioa eta elkarlana), EAEko Emakume eta Gizonen Berdintasunerako VII. Planean jasotako lan-agendak horietako batzuk sakontzen eta azpimarratzen ditu, proposatutako jarduketa gidatzeko estrategikoak direlako, eta beste batzuk gehitzen ditu. Jarraian deskribatuko dira:

- **PARADIGMA FEMINISTA.** Feminismoa da, pentsamendu feministako lerro eta dimentsio guztiak barne, emakumeen eta gizonen desberdinkeriak eta diskriminazioak nola eta zergatik sortzen diren azaltzea eta ulertzea ahalbidetzen duen teoria eta praktika politikoa.
- **GENERO IKUSPEGIA.** Analisi- eta lan-metodologia modura, ikuspegi horrek agerian jartzen ditu eta, ondorioz, ekiteko moduko bihurtzen ditu emakumeen eta gizonen arteko desberdinkeriak. Genero-ikuspegia hartzeak esan nahi du emakumeen aurkako diskriminazioaren aurka kokatzen den agenda eraiki nahi dela.
- **INTERSEKZIONALITATEA.** Generoa eta beste desberdinkeria batzuen arteko intersekzionalitatea aitortzen da. Nahiz eta patriarkatuan emakume guztiek genero-identitate bera izan, guztiek ez dituzte ezaugarri berberak. Horregatik, beren aniztasunean, emakumeak ere desberdinak dira beren artean, generoa eta beste desberdinkeria- eta diskriminazio-iturri batzuekin (hizkuntza, klasea, etnia, jatorria, sexu-orientazio eta genero-identitatea, adina, dibertsitate funtzionala eta abar) elkarrekikotasunean erlazionatzeko duten moduaren arabera.
- **EMAKUMEEN AHALDUNTZEA** Emakumeak ahalduntzea ezinbestekoa da berdintasuna lortzeko. Emakumeen ahalduntzea helburua, tresna eta prozesua da; hainbat mailatan egon behar da (pertsonala, kolektiboa, soziala eta politikoa) eta hainbat alorretatik lagundu behar zaio (politiko-instituzionala, eta antolaketaren, gizartearen eta herritarren arlokoa). Nazioartean hitzartutako garapen- eta jasangarritasun-helburuak lortzeko eta emakumeen eta neskatoen bizi-kalitatea hobetzeko, ezinbestekoa da ahaldundu daitezen laguntzea.
- **GARAPEN JASANGARRIA.** Giza garapen osoak, jasangarria izan dadin eta egiturako aldaketak bultzatzen, emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna eta genero-ikuspegia txertatu behar ditu bere ingurumen-, gizarte- eta ekonomia-alderdietan.

EAEko VII. Planean proposatutako ekintzen oinarri diren printzipio horiez gain, berme hauek ezarri dira, jasotako jarduketak operatiboak izan daitezen eta aurreikusitako eragina izan dezaten:

1. Emakumeen eta gizonen berdintasunarekiko benetako konpromiso politikoa.
2. Beharrezko aurrekontu-baliabideak, giza baliabideak eta baliabide teknikoak berdintasuneko politika publikoen esku jartzea.
3. Politika gardena izatea eta herritarrei kontuak ematea, diru publikoaren bidez berdintasunari nola laguntzen zaion jakinarazteko.
4. Emakume- eta herri-mugimenduek, baita eragile ekonomiko eta sozialek ere, politiken garapenean parte hartzea eta hitz egitea, parte hartzeko eredu demokratikoago batetik, halako moldez non haien ekarpenak aintzat hartuko diren eta eragina izango duten.
5. Erakunde guztiek eta horiek osatzen dituzten sailek erantzunkidetasuna izatea, emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna lortze aldera.

BIZKAIKO FORU ALDUNDIA

1. Bizkaiko Foru Aldundiak urteak daramatza lanean berdintasun alorrean. Lan horren lehen urratsa 2000. urtean egin zuen, Berdintasun Unitatea sortu zuenean eta Berdintasunerako I. Foru Plana (2000-2003) prestatu zuenean. Gaur egun indarrean du Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako V. Plana (2016-2019).
2. 2018ko uztailaren 14an indarrean hasi zen ekainaren 20ko 4/2018 Foru Araua, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerakoa, Bizkaiko Foru Aldundiak bultzatua eta Bizkaiko Batzar Nagusiek onartua.

Martxoaren 22ko 3/2007 Lege Organizkoa, Emakumeen eta Gizonen Berdintasun Eragingarrirako

Lege horrek (2007ko martxoaren 23ko EAO) premisa hau du oinarrian: hots, emakumeen eta gizonen berdintasuna printzipio juridiko unibertsala da, giza eskubideei buruzko nazioarteko hainbat testutan aitortua. Bestetik halaber, badio legeak, legezko berdintasun formala erabat aitortzea ezinbestekoa izanik ere, hobetu egin behar dela eta horri begira proposatzen du ekintza arauemailea, zuzenean edo zeharka, sexuan oinarritutako bereizkeriaren agerpen guztiak borrokatzeko, oraindik ere horrelakoak dauden giroan, eta emakumeen eta gizonen berdintasuna sustatzeko, hori lortzea eragozten duten oztopoak eta gizarte estereotipoak kenduz.

Legearen funtsezko printzipioak, besteak beste, ekintza positiboa, ordezkaritza orekatua eta zeharkakotasuna dira.

Bestetik 21.1 atalean badio toki erakundeek berdintasunerako eskubidea barneratuko dutela euren eskumenak gauzatzean eta, horretarako, elkarlanean arituko direla gainerako herri administrazioekin. Beraz, 3/2007 Lege honek toki administrazioen eskumenak aitortzen ditu, oro har Toki Jaurpideko Oinarriak Arautzeko apirilaren 2ko 7/1985 Legeak esleitu bezala eta, zehatzago, euskal udalei dagokienez, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako otsailaren 18ko 4/2005 Legeak esleitu bezala.

Lanean eta enpleguan emakumeen eta gizonen arteko aukeren eta tratabideen bermerako premiazko neurriei buruzko martxoaren 1eko 6/2019 Lege-Dekretua

Lege-Dekretu honek dauzkan zazpi artikuluek lege-lerruneko arau bana aldatzen dute, arau horiek zuzenean dagozkiolarik emakumeen eta gizonen berdintasunari. Horietako batzuk dira, besteak beste, Berdintasunerako 3/2007 Lege Organikoa edo Langileen Estatutuaren Legea. 2019ko martxoaren 8an hasi zen indarrean, salbuespenak direlarik apirilaren 1ean hasi zirenak.

Aukera Berdintasunerako Estatu Plana (2018–2021)

Estatu mailako Aukera Berdintasunerako I. Plana 1988an onetsi zen eta gaur egun indarrean dago 2018–2021 epealdirako Plan Estrategikoa.

Europako Gutuna, Emakumeek eta Gizonek Tokian Tokiko Bizimoduan izan behar duten Berdintasunerako

Europako Gutun hori, Europako Udalerrien eta Eskualdeen Kontseiluak sustatua Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako V. Ekintza Egitasmo Bateratuaren esparruan, Europako tokiak tokiko eta eskualdeko gobernuentzako da eta gonbidatu egiten ditu sinatzera, emakumeen eta gizonen berdintasunaren printzipioaren inguruko jarrera publikoa hartzera eta gutunean zehaztutako konpromisoak beren lurraldean ezartzera.

Eudel (Euskal Udalerrien Elkartea) egitasmo horren parte-hartzailea izanik, gero eta euskal udal gehiagok sinatu du gutun hori. Gutunari atxikitako udalek konpromisoa bereganatzen dute, batetik, bi urtetan berdintasunerako ekintza plana prestatu eta garatuko dutela, modu parte-hartzailez diseinatua eta ebaluazio-irizpideduna eta, bestetik, baliabide nahikoak paratuko dituztela plan hori garatu ahal izateko. Gutunak, gainera, badio tokiko eta eskualdeko aginteak esku hartzeko maila egokienak direla

desberdintasunaren iraupenari zein ugalketari aurre egiteko eta benetako berdintasuna eskaintzen duen gizartea sustatzeko.

Arau horien oinarrian Emakumeen eta Gizonen Bedintasunerako EAEko 4/2005 Legeak dakartzan berdintasunerako printzipioak daude. Hona hemen printzipio horien definizioak:

1.– TRATU BERDINA. Debeku da pertsonen sexuan oinarritzen den bereizkeria oro, zuzenekoa zein zeharkakoa, hartarako erabilitako era edozein delarik ere.

Lege honen ondoreetarako:

- a) Zuzeneko bereizkeria dago gizaki bat sexuaren zioz edo sexuarekin zuzenean loturik dauden inguruabarrak direla-eta –haurdun egonda edo ama izanda, esaterako– beste bat baino okerrago tratatzen denean. Delitu gisa izan dezakeen tipifikazioa ahaztu gabe, laneko sexu-jazarpena sexuaren ziozko zuzeneko bereizkeriatzat jotzen da.
- b) Zeharkako bereizkeria dago egintza juridiko, irizpide edo egikera batek, itxuraz neutroa izanda ere, sexu bereko multzo aski handiago bati kalteak eragiten dizkionean, salbu eta egintza juridiko, irizpide edo egikera hori egokia eta beharrezkoa denean eta sexuarekin loturik ez dauden irizpide objektiboak erabilia justifikatzeko modukoa denean.

Euskal aginte publikoek ezin izango diote inolako dirulaguntza edo laguntzarik eman sexuaren ziozko bereizkeria eragiten duen edonolako jarduerari. Sexuaren ziozko bereizkeria dela-eta administrazio-zehapena edo zigor penala jaso duten pertsona fisiko edo juridikoak ere egoera berean geratuko dira, dena delako zehapen edo zigorrak dirauen denboran.

Euskal herri-aginteei bermatu behar dute, bereizkeria-egoerak eragin ditzaketen beste inguruabar batzuk ere tartean direla-eta, bereizkeria anizkoitza jasaten duten emakumeek nahiz emakume-taldeek benetan baliatzen dituztela beren oinarritzko eskubideak. Inguruabarrok honako hauek izan daitezke: arraza, kolorea, jatorri etnikoa, hizkuntza, erlijioa, politikari edo bestelako gaiei buruzko iritziak, gutxiengo nazional baten kide izatea, ondarea, jaioterria, ezintasuna, adina, sexu-joera, edo beste edozein baldintza edo inguruabar pertsonal edo sozial.

2.– AUKERA BERDINTASUNA. Euskal herri-aginteei neurri egokiak hartu behar dituzte emakumeek eta gizonek eskubide politikoak, zibilak, ekonomikoak, sozialak eta kulturalak, eta arauetan aitortu lekizkiekeen gainerako oinarritzko eskubideak, aukera berdinekin baliatzen dituztela bermatzeko, boterea eta baliabide eta etekin ekonomikoak eta sozialak eskuratu eta kontrolatzea barne. Lege honen ondoreetarako, aukera-berdintasunaz ari garela, zera esan nahi da: agintea eta baliabide eta onura sozial eta ekonomikoak eskuratzeko abiagune edo hasierako baldintzak ez ezik, horiek guztiak gauzatzeko eta behar den moduan kontrolatzeko baldintzez ere ari garela.

Era berean, euskal herri-aginteeek bermatu egin beharko dute ez dela oztoporik egongo lege honetan aipatzen diren eskubideak gauzatzeko eta arautzen diren baliabideak eskuratzeko; izan ere, Irisgarritasuna Sustatzeko abenduaren 4ko 20/1997 Legean oztopo horiek bertan behera uztea zehazten baita.

3.– ANIZTASUNA ETA DESBERDINTASUNA ERRESPETATZEA. Herri-aginteeek beharrezko neurri guztiak abiarazi behar dituzte sexuen berdintasunerako prozesuan errespetatu daitezen bai gizonen eta emakumeen artean biologiari, bizi-baldintzei, jomugei eta beharrezkoen dagozkienez dauden ezberdintasunak eta aniztasuna, bai eta emakumeen eta gizonen kolektiboen euren barruan dauden ezberdintasunak eta aniztasuna ere.

4.– GENERO IKUSPEGIAREN INTEGRAZIOA. Euskal herri-aginteeek genero-ikuspegia txertatu behar dute beren politika eta ekintza guztietan, halako moduz non horietan guztietan desberdintasunak ezabatzeko eta emakumeen eta gizonen berdintasuna sustatzeko helburu orokorra ezarriko duten. Lege honen ondoreetarako, honakoa da genero-ikuspegiaren integrazioa: emakumeen eta gizonen egoera, baldintza, jomuga eta beharrezko desberdinak modu sistematikoan kontsideratzea eta, horretarako, politika eta ekintza guztietan, maila guztietan eta horien plangintza-, egikaritze- eta ebaluazio-fase guztietan, desberdintasunak ezabatzeko eta berdintasuna sustatzeko xedea duten helburu eta jarduketa zehatzak txertatzea.

5.– EKINTZA POSITIBOA. Emakumeen eta gizonen benetako berdintasun eraginkorra lortzea sustatze aldera, herri-aginteeek denboran ondo mugatutako berariazko neurri zehatzak abiarazi behar dituzte, bizitzaren eremu guztietan sexuaren zioz gertatzen diren egitatezko desberdintasunak ezabatzeko edo murrizteko.

6.– SEXUAREN ARABERAKO ROLAK ETA ESTEREOTIPOAK DESAGERRARAZTEA. Euskal aginte publikoek sexuaren araberako rol sozial eta estereotipo batzuk desagerraraztea sustatu behar dute, emakumeen eta gizonen arteko desberdintasunaren oinarri baitira eta horien arabera emakumeei etxeko eremuaren ardura eta gizonei eremu publikoaren ardura izendatzen baitzaizkie, gainera balorazio eta aitorten ekonomiko eta sozial oso desberdina eginez.

7.– ORDEZKARITZA OREKATUA. Euskal aginte publikoek neurri egokiak hartu behar dituzte emakumeen eta gizonen presentzia orekatua lor dadin erabakiak hartzeko eremu guztietan. Lege honen ondoreetarako, kide anitzeko administrazio-organoetan ordezkaritza orekatutzat, hain zuzen, sexu biek gutxienez % 40ko ordezkaritza dutenean joko da.

3. PLANAREN EZAUGARRIAK

Plan honen helburu nagusia izanik genero ikuspegia udalaren kudeaketan txertatzea, horretarako berdintasunaren aldeko udal politikak arauzko berdintasuna gainditu behar dute eta aukeren eta emaitzen benetako berdintasun eraginkorra bermatzera jo. Planak honako ezaugarriak ditu:

Bost urteko iraunaldia du; hots, 2020tik 2024ra bitartean izango du indarra.

Modu parte-hartzailez egin da, aldez aurretik diagnostikoa eginda, datuak eguneratuta eta aurreko plana ebaluatuta, Berdintasun Batzorde Mistoaren inplikazio aktiboari esker.

Plan ireki eta malgua da, urteroko kudeaketa planak zehazteke daudelarik.

Plan ebaluagarria da: erakusleak ditu, lortzen diren helburuak etengabe neurtu ahal izateko.

Helburu eta ekintza bideragarriak ditu, udal sail eta entitate arduradun guztiek garatzeko modukoak aurreikusitako epean eta erabilgarri dauden baliabideak darabiltzatelarik.

Udalerriari dagokio eta konpromiso politikoa, teknikoa eta herritarrena dakar berez.

4. DIAGNOSTIKOAN JASOTAKO HOBETZEKOAK

Hona hemen diagnostikoan atzemandako beharrak, lau esparru handitan sailkatuta, EAEko Emakumeen eta Gizonen berdintasunerako VII. Planeko printzipio eta esku hartzeko lerroekin bat etorriz:

- GOBERNU ONA
- EMAKUMEEN AHALDUNTZEA
- EKONOMIAK ETA GIZARTEAREN ANTOLAMENDUA ERALDATZEA ESKUBIDEAK BERMATZEKO
- INDARKERIA MATXISTARIK GABEKO BIZITZAK

GOBERNU ONA

1. Berdintasun Planaren aurrerapenak gehiago eta hobeto hedatu eta komunikatu
2. Berdintasunaren gaineko komunikazioetan irakurketa erraza erabili
3. Planaren emaitzak etengabe neurtu eta ebaluatzeko sistema hobetu
4. Berdintasun Batzorde Mistoan beste eragile batzuen parte-hartzea handitu
5. Berdintasun Batzorde Mistoan aniztasuna sistematikoago landu
6. Hizkeraren eta irudien berdintasunezko erabileraren jarraipena eta berrazterketa egiteko mekanismoak hobetu
7. Udal politikariei eta langileei berdintasunaren gaineko prestakuntza eman

EMAKUMEEN AHALDUNTZEA

8. Emakumeen etxe bat sortu
9. Emakumeekin batera prozesu parte-hartzailea martxan jarri, emakumeen etxea sortzeko
10. Emakumeen etxea sortzeko prozesu parte-hartzailean aniztasuna txertatu
11. Ahalduntze programa zehatzak sustatu gazteentzat eta nagusientzat
12. Emakumeen oroimen historikoa ikusarazi, esaterako Portugaleteko emakumeak wikipediaratzeko proiektuaren bitartez

EKONOMIAK ETA GIZARTEAREN ANTOLAMENDUA ERALDATU ESKUBIDEAK BERMATZEKO

13. Sostengua eman berdintasunaren aldeko gizonen taldeari
14. Hainbat ekintza antolatu kirol arloan berdintasuna hobetzeko
15. Berdintasunari buruzko prestakuntza eman gazteen hezitzaileei
16. Egun berezietako ospakizunak gizarte eragile gehiagorekiko elkarlanean antolatu
17. Elkarrekin lan egin genero ikuspegia barnera dezaten
18. Kirol klubekin lan egin genero ikuspegia barnera dezaten
19. Berdintasun jardunaldiak urtero antolatu beste formato batzuk erabiliz
20. Erantzukidetasuna sustatu gizonen artean
21. Haurrentzako masajearen lantegia antolatzen jarraitu gizonen begira
22. Zaintzaileei laguntzeko lantegiak antolatzen jarraitu
23. Erreferente maskulinoak kontuan hartu zaintzei dagokienez
24. Zerbitzuen ordutegiak aztertu denboraren erabilera berriak kontuan hartuta
25. Beste udalerrri batzuetako esperientziak aztertu pertsonen zaintza komunitarioari dagokionez

INDARKERIA MATXISTARIK GABEKO BIZITZAK

26. Informazioa eta sentsibilizazioa eskaini etengabe herritarrei eta gizarte eragilei
27. Indarkeriari aurre egiten dioten emakumeen arretaren koordinazioa hobetu
28. Indarkeria matxista aurrezaindu gazteen artean
29. Emakume nagusien kontrako indarkeria ikusarazi
30. Aurkitutako gune beltzak hobetu
31. Kiroldegietan gune seguruak sustatu

5. EKINTZA PLANA 20-24

Portugaleteko Udalaren Berdintasunerako Plan honek 4 eskuhartze-ardatz ditu, 10 programa, 18 helburu eta 53 ekintza:

ARDATZA	PROGRAMAK	HELBURUAK	EKINTZAK
Gobernu ona	3	11	26
Emakumeen ahalduntzea	2	2	5
Ekonomiak eta gizartearen antolamendua eraldatzea eskubideak bermatzeko	2	2	11
Indarkeria matxistarik gabeko bizitzak	3	3	11
GUZTIRA	10	18	53

ARDATZA		PROGRAMAK
Gobernu ona	1: Konpromiso politikoa 2: Berdintasunerako trebakuntza 3: Genero ikuspegia lan prozeduretan	Helburua 1.1: Berdintasunarekiko konpromiso politikoa sendotu. Helburua 1.2: Emakumeen eta gizonen berdintasunerako sustapen, koordinazio eta parte-hartzeko egiturak indartu. Helburua 1.3: Berdintasunerako toki politiken ebaluazioa hobetu. Helburua 2.1: Maila guztietako politikari eta teknikariengan ezagutza eta gaitasun profesional nahikoa sorrarazi, genero ikuspegia barnera dezaten. Helburua 3.1: Genero ikuspegia estatistika eta azterlanetan txertatu. Helburua 3.2: Genero ikuspegia komunikazioan txertatu. Helburua 3.3: Enplegu publikora sartzeko prozesuetan eta barne sustapenetan berdintasunaren gaineko edukiak txertatu. Helburua 3.4: Arautegietan berdintasunaren printzipioa txertatu. Helburua 3.5: Aurrekontuetan berdintasunaren printzipioa txertatu. Helburua 3.6: Genero ikuspegia sektore eta zeharkako planetan txertatu. Helburua 3.7: Kontratu, dirulaguntza eta hitzarmenetan berdintasunaren aldeko klausulak txertatu.
Emakumeen ahalduntzea	4: Emakumeen ahalduntze pertsonal, kolektibo, sozial eta politikoari lagundu 5: Emakumeen oroimen historikoa	Helburua 4.1: Emakumeen ahalduntze pertsonal, kolektibo, sozial eta politikoa hobetu, aniztasuna kontuan hartuta. Helburua 5.1: Emakumeek Portugaletako historiari egin dizkieten ekarriak ikusarazi.
Ekonomiak eta gizarte antolamendua eraldatzea eskubideak bermatzeko	6: Berdintasunaren balioak sustatu 7: Erantzukidetasuna sustatu	Helburua 6.1: Herritarrek berdintasunari dagokionez daukaten sentsibilizazio maila hobetu. Helburua 7.1: Herritarrak sentsibilizatu zaintzen eta erantzukidetasunaren balioaz eta garrantziaz.
Indarkeria matxistatik gabeko bizitzak	8: Indarkeria matxistari aurre egiten dioten emakumeei arreta eta babesa eman 9: Erakundearen erantzuna, indarkeria matxistaren kasuen aurrean 10: Indarkeria matxistaren inguruko sentsibilizazioa eta aurrezaintza	Helburua 8.1: Babesa eta osoko arreta bermatu indarkeria matxistari aurre egiten dioten emakumei. Helburua 9.1: Baliabideak eta tresnak garatu, indarkeria matxistatik gabeko udalerrira bermatzeko. Helburua 10.1: Indarkeriarik gabeko jokamoldeak sustatu eta emakumeenganako jokaera indarkeriazkoak hobetu.

GOBERNU ONA

1 programa: Konpromiso politikoa

1.1 helburua: Berdintasunarekiko konpromiso politikoa sendotzea.									
EKINTZAK	URTEA					AURREKONTUA	SAIL	ERAKUSLEAK	
	20	21	22	23	24		ARDURADUNAK		
1. Udalaren Gobernu Batzordearen gai bakarreko saio batean Berdintasun Plana aztertu.							Alkatetza	Udalaren Gobernu Batzordeak zenbat saiotan aztertu duen Berdintasun Plana Planaren betetze maila aztertuta	

1.2 helburua: Emakumeen eta gizonen berdintasunerako sustapen, koordinazio eta parte-hartzeko egiturak indartu.									
EKINTZAK	URTEA					AURREKONTUA	SAIL	ERAKUSLEAK	
	20	21	22	23	24		ARDURADUNAK		
2. Berdintasun Batzorde Mistoan udal sail guztiek parte hartzea indartu.							Gizarte Zerbitzuak eta udal sail guztiak	Berdintasun Batzorde Mistoan zenbat udal sailek parte hartzen duten	
3. Berdintasun Batzorde Mistoaren gaineko hausnarketa egin eta berriro definitu.							Gizarte Zerbitzuak	Batzordekideak aztertu sexuaren arabera Zein neurritan dagoen txertatuta aniztasuna Batzordean parte hartzen duten eragileen kopurua eta mota Batzordearen bilera kopurua	
4. Epaimahai, sozietate publikoen administrazio-kontseilu, parte-hartzeko organo eta sektore-mahaletako emakumeen eta gizonen ordezkaritza orekatua aztertu eta berrikusi.							Gizarte Zerbitzuak eta udal sail guztiak	Epaimahai, sozietate publikoen administrazio-kontseilu, parte-hartzeko organo eta sektore-mahaletako kide kopurua, sexuaren arabera	

1.3 helburua: Berdintasunerako toki politiken ebaluazioa hobetu.									
EKINTZAK	URTEA					AURREKONTUA	SAIL ARDURADUNAK	ERAKUSLEAK	
	20	21	22	23	24				
5. Berdintasun Planeko urteroko kudeaketa planak landu.							Gizarte Zerbitzuak	Urteko kudeaketa plana egin ote den	
6. Berdintasun Plana sei hilean behin ebaluatu.							Gizarte Zerbitzuak	Planaren betetze maila urtean Talde ebaluatzaileak sortu ote den Planeko erakusleak urtero jaso	
7. Urtero egin planaren oroitidazkia.							Gizarte Zerbitzuak	Oroit-idazkia egin ote den	

2 programa: Berdintasunerako trebakuntza.

2.1 helburua: Maila guztietako politikari eta teknikariengan ezagutza eta gaitasun profesional nahikoa sorrarazi, genero ikuspegia barnera dezaten.									
EKINTZAK	URTEA					AURREKONTUA	SAIL	ERAKUSLEAK	
	20	21	22	23	24		ARDURADUNAK		
8. Prestakuntza saioak antolatu emakumeen eta gizonen berdintasunaz udaletxeko politikari eta langileentzat, bi maila diferentetan: oinarritzko maila eta maila aurreratua.							Giza Baliabideak eta Gizarte Zerbitzuak	Parte-hartzea sexuaren, karguaren eta udal sailen arabera Zenbat prestakuntza-ordu jaso duten Ehuneko zenbatek jaso duten berdintasunari buruzko prestakuntza zehatza Jasotako prestakuntzarekiko asebetetze maila (0-10)	

3 programa: Genero ikuspegia lan prozeduretan.

3.1 helburua: Genero ikuspegia estatistika eta azterlanetan txertatu.									
EKINTZAK	URTEA					AURREKONTUA	SAIL ARDURADUNAK	ERAKUSLEAK	
	20	21	22	23	24				
9. Udal sailen oroitidazkietan sexuaren arabera xehekaturiko datuak erabili eta aztertu.							Gizarte Zerbitzuak eta udal sail guztiak	Urtero jaso ebidentziak udal sailetatik	
10. Sexuaren aldagaia txertatu udal programa guztien onuradunen gaineko informazioa jasotzean.							Gizarte Zerbitzuak eta udal sail guztiak	Urtero jaso ebidentziak udal sailetatik	
11. Bereiz aztertu emakumeen eta gizonen parte hartzea udal sail guztietako programa eta baliabideetan.							Gizarte Zerbitzuak eta udal sail guztiak	Urtero jaso ebidentziak udal sailetatik	

3.2 helburua: Genero ikuspegia komunikazioan txertatu.									
EKINTZAK	URTEA					AURREKONTUA	SAIL ARDURADUNAK	ERAKUSLEAK	
	20	21	22	23	24				
12. Herritarrentzako informazio ofiziala sexismorik gabeko hizkeraz idatzi.							Alkatetza eta udal sail guztiak	Ebidentziak jaso ote diren	
13. Berdintasunezko informazioetan apurka-apurka txertatu irakurketa erraza.							Gizarte Zerbitzuak	Ebidentziak jaso ote diren	
14. <i>Portuigaldad</i> webgunea aldiro eguneratu.							Gizarte Zerbitzuak eta Teknologia Berriak	Ebidentziak jaso ote diren	
15. Etengabeko aholkularitza eskaini sexismorik gabeko hizkeraren gainean.							Alkatetza	Zenbat kontsulta jaso den, sexuaren, karguaren eta udal sailen arabera	
16. Berdintasun Planaren aurrerapenen berri eman udaletxe barruan nahiz kanpora.							Gizarte Zerbitzuak	Zenbat jakinarazpen egin den	

3.3 helburua: Enplegu publikora sartzeko prozesuetan eta barne sustapenetan berdintasunaren gaineko edukiak txertatu.

EKINTZAK	URTEA					AURREKONTUA	SAIL ARDURADUNAK	ERAKUSLEAK
	20	21	22	23	24			
17. Enplegu publikoan sartzeko, hornitzeko eta sustatzeko hautabideetan emakumeak azpiordezkatuak egonez gero, beraien aldeko klausula bat ezarri, berdinketak desegiteko.							Giza Baliabideak eta Alkatetza	Enplegu publikoan sartzeko, hornitzeko eta sustatzeko hautabide kopurua Zenbat klausula ezarri den berdinketak desegiteko enplegu publikoan sartzeko, hornitzeko eta sustatzeko hautabideetan
18. Enplegu publikorako prozesuen gai zerrendetan berdintasunari buruzko gaiak sartu.							Giza Baliabideak eta Alkatetza	Ebidentziak jaso ote diren

3.4 helburua: Arautegietan berdintasunaren printzipioa txertatu.

EKINTZAK	URTEA					AURREKONTUA	SAIL ARDURADUNAK	ERAKUSLEAK
	20	21	22	23	24			
19. Eraginaren ebaluazioak egin, generoaren arabera, administrazio arau eta ekintzetan.							Idazkaritza eta Alkatetza	Zenbat eragin-ebaluazio egin den, generoa kontuan hartuta, administrazio arau eta ekintzetan
20. Berdintasunaren aldeko neurriak txertatu administrazio arau eta ekintzetan.							Idazkaritza eta Alkatetza	Berdintasunaren aldeko zenbat neurri txertatu den administrazio arau eta ekintzetan

3.5 helburua: Genero ikuspegia txertatu aurrekontuetan.									
EKINTZAK	URTEA					AURREKONTUA	SAIL ARDURADUNAK	ERAKUSLEAK	
	20	21	22	23	24				
21. Aldez aurretik baloratu nola eragiten dioten aurrekontuek berdintasunari.							Ogasuna eta Alkatetza	Aldez aurretik baloratu ote den nola eragiten dioten aurrekontuek berdintasunari	
22. Aurrekontuetan berdintasuna sustatzeko neurriak hartu.							Ogasuna eta Alkatetza	Aurrekontuetan berdintasuna sustatzeko zenbat neurri hartu den	

3.6 helburua: Genero ikuspegia sektore eta zeharkako planetan txertatu.									
EKINTZAK	URTEA					AURREKONTUA	SAIL	ERAKUSLEAK	
	20	21	22	23	24		ARDURADUNAK		
23. Genero ikuspegia txertatu sektore eta zeharkako planak diseinatu, kudeatu eta ebaluatzerakoan.							Alkatetza eta Gizarte Zerbitzuak	Zenbat sektore planek duten txertatuta genero ikuspegia	
24. Berdintasun teknikariak parte hartu sektore eta zeharkako planen elaborazioan eta jarraipenean.							Alkatetza eta Gizarte Zerbitzuak	Zenbat sektore planetan parte hartzen duen berdintasun teknikariak	

3.7 helburua: Kontratu, dirulaguntza eta hitzarmenetan berdintasunaren aldeko klausulak txertatu.									
EKINTZAK	URTEA					AURREKONTUA	SAIL	ERAKUSLEAK	
	20	21	22	23	24		ARDURADUNAK		
25. Kontratu, dirulaguntza eta hitzarmenetako berdintasun-klausulak aztertu eta ugaltu.							Erosketa Saila eta udal sail guztiak	Zenbat kontratuk, dirulaguntzak eta hitzarmenek daukaten berdintasun-klausularik	
26. Kontratu, dirulaguntza eta hitzarmenetako berdintasun-klausulak txertatzearen jarraipena egin.							Erosketa Saila eta Gizarte Zerbitzuak	Jarraipenik egin ote den	

EMAKUMEEN AHALDUNTZEA

4 programa: Emakumeen ahalduntze pertsonal, kolektibo, sozial eta politikoari lagundu, aniztasuna kontuan hartuta.

4.1 helburua: Emakumeen ahalduntze pertsonal, kolektibo, sozial eta politikoa hobetu, aniztasuna kontuan hartuta.

4.1 helburua: Emakumeen ahalduntze pertsonal, kolektibo, sozial eta politikoa hobetu, aniztasuna kontuan hartuta.									
EKINTZAK	URTEA					AURREKONTUA	SAIL	ERAKUSLEAK	
	20	21	22	23	24		ARDURADUNAK		
27. Emakumeen etxea sortu eta martxan jartzeko prozesu parte-hartzailea.							Gizarte Zerbitzuak	Prozesuan zenbat elkartek parte hartzen duten Prozesuan zenbat emakumek parte hartzen duten, aniztasuna kontuan hartuta Zenbat euro inbertitu den Zenbat jarduera garatu den Jardueretan zenbat emakumek parte hartzen duten, aniztasuna kontuan hartuta Jasotako prestakuntzarekiko asebetetze maila (1-10)	
28. Emakume gazteak ahalduntzeko programa zehatza garatu.							Gizarte Zerbitzuak eta Gazteria	Zenbat jarduera garatu den emakume gazteei begira Zenbat emakume gaztek parte hartu duen, aniztasuna kontuan hartuta Jasotako prestakuntzarekiko asebetetze maila (1-10)	
29. Emakume nagusiak ahalduntzeko programa zehatza garatu.							Gizarte Zerbitzuak	Zenbat jarduera garatu den emakume nagusiei begira Zenbat emakume nagusik parte hartu duen, aniztasuna kontuan hartuta Jasotako prestakuntzarekiko asebetetze maila (1-10)	

5 programa: Emakumeen oroimen historikoa.

5.1 helburua: Emakumeek Portugaleteko historiari egin dizkioten ekarriak ikusarazi.

5 .1 helburua: Emakumeek Portugaleteko historiari egin dizkieten ekarriak ikusarazi.									
EKINTZAK	URTEA					AURREKONTUA	SAIL		ERAKUSLEAK
	20	21	22	23	24		ARDURADUNAK		
30. Portugaleteko historian emakumeak ikusarazteko proiektu bat garatu.							Kultura eta Gizarte Zerbitzuak	Zenbat emakume ikusarazi den Ebidentziak	
31. Udalerriko kaleei edo intereseko guneei emakumeen izenak ezarri.							Alkatetza	Zenbat proposamen egin den emakumeen izenak ezartzeko Zenbat emakume-izen ezarri zaien urtean udalerriko kaleei edo intereseko guneei	

EKONOMIAK ETA GIZARTEAREN ANTOLAMENDUA ERALDATZEA

ESKUBIDEAK BERMATZEKO

6 programa: Berdintasunaren balioak sustatu.

6.1 helburua: Herritarrek berdintasunari dagokionez daukaten sentsibilizazio maila hobetu.								
EKINTZAK	URTEA					AURREKONTUA	SAIL ARDURADUNAK	ERAKUSLEAK
	20	21	22	23	24			
32. Berdintasunaren inguruko egunetan sentsibilizazio kanpainak antolatu.							Gizarte Zerbitzuak	Ekintza kopurua eta parte-hartzea sexuaren arabera Zenbat eragilek parte hartu duen Aniztasuna txertatu ote den
33. Sostengua eman berdintasunaren aldeko gizonen taldeari.							Gizarte Zerbitzuak	Zenbat ekintza antolatu duen berdintasunaren aldeko gizonen taldeak Zenbat parte-hartzaile izan den ekintzotan Udalarekin elkarlanean aritzen direnen kopurua
34. Berdintasunezko prestakuntza antolatu udalerriko elkarteei begira.							Gizarte Parte Hartze eta Berrikuntza, Gizarte Zerbitzuak	Ekintza kopurua eta parte-hartzea sexuaren arabera Jasotako prestakuntzarekiko asebetetze maila (1-10)
35. Berdintasunezko prestakuntza antolatu gazteen begiralei begira.							Gazteria, Gizarte Zerbitzuak	Ekintza kopurua eta parte-hartzea sexuaren arabera Jasotako prestakuntzarekiko asebetetze maila (1-10)
36. Kirol klubekin lan egin, genero ikuspegia txerta dezaten.							Kirolak, Gizarte Zerbitzuak eta Batzorde Mistoa	Zenbat klubek parte hartu duten Zenbat klubek txertatu duten genero ikuspegia
37. Berdintasun Jardunaldiak antolatzen jarraitu.							Gizarte Zerbitzuak eta Batzorde Mistoa	Parte-hartzaile kopurua sexu, adin, dibertsitate funtzional, jatorri eta abarren arabera Aniztasuna txertatu ote den edukietan

7 programa: Erantzukidetasuna sustatu.

7.1 helburua: Herritarrek sentsibilizatu zaintzen eta erantzukidetasunaren balioaz eta garrantziaz.								
EKINTZAK	URTEA					AURREKONTUA	SAIL ARDURADUNAK	ERAKUSLEAK
	20	21	22	23	24			
38. Hainbat lantegi antolatu gazteen artean erantzukidetasuna lantzeko.							Gazteria, Gizarte Zerbitzuak	Ordu kopurua eta parte-hartzea urtean sexuaren arabera.
39. Erantzukidetasun alorreko jardunbide onak hedatu.							Gizarte Zerbitzuak	Jasotako ebidentziak

40. Zaintzaileei laguntzeko lantegiak antolatzen jarraitu.							Gizarte Zerbitzuak	Ordu kopurua eta parte-hartzea urtean sexuaren arabera Erantzukizuna landu ote den
41. Zerbitzu publikoen ordutegiak aztertu.							Gizarte Zerbitzuak, Giza Baliabideak	Azterketarik egin ote den Ordutegien tipologia Ea ordutegiok bat datozen denboraren erabilera berriekin
42. Beste udalerri batzuetako esperientziak aztertu, nagusien zaintza komunitarioari dagokionez.							Gizarte Zerbitzuak	Azterketarik egin ote den

INDARKERIA MATXISTARIK GABEKO BIZITZAK

8 programa: Indarkeria matxistari aurre egiten dioten emakumeei arreta eta babesa eman.

8.1 helburua: Babesa eta osoko arreta bermatu indarkeria matxistari aurre egiten dioten emakumeei.								
EKINTZAK	URTEA					AURREKONTUA	SAIL	ERAKUSLEAK
	20	21	22	24	23		ARDURADUNAK	
43. Eguneko protokoloa, erakunde barruko eta erakunde arteko koordinaziokoa, berrikusi eta eguneratu.							Gizarte Zerbitzuak, Herritarren Segurtasuna	Protokoloa berrikusi ote den Emakumeen asebetze maila jasotako arretaz (1-10)
44. Indarkeria matxistaren biktimentzako erreparazio proiektua diseinatu.							Gizarte Zerbitzuak, Herritarren Segurtasuna	Laguntza emandako seme-alaben kopurua Laguntza emandako emakume kopurua Egindako ekintza kopurua Laguntza-proiektua landu
45. Aldiro jaso datuak indarkeria matxistari buruz.							Gizarte Zerbitzuak, Herritarren Segurtasuna	Indarkeria matxistaren zenbat kasu urtean
46. Indarkeria matxistaren gaineko prestakuntza eskaini indarkeria matxistari aurre egiten dioten emakumeak artatzen diharduten langileei.							Gizarte Zerbitzuak, Herritarren Segurtasuna	Prestakuntza ordu kopurua eta parte-hartzea sexuaren arabera Jasotako prestakuntzarekiko asebetetze maila (1-10)

9 programa: Erakundearen erantzuna, indarkeria matxistaren kasuen aurrean.

9.1 helburua: Baliabideak eta tresnak garatu, indarkeria matxistarik gabeko udalerria bermatzeko.									
EKINTZAK	URTEA					AURREKONTUA	SAIL	ERAKUSLEAK	
	20	21	22	23	24		ARDURADUNAK		
47. Urtero egin barne-txostena Portugaleten gertatzen den indarkeria matxistari buruz.							Gizarte Zerbitzuak, Herritarren Segurtasuna	Urteroko txostenik egin ote den	
48. Herritarrei informazioa eta sentsibilizazioa eman indarkeria matxistaz.							Gizarte Zerbitzuak	Indarkeria matxistaren gaineko zenbat informazio zabaldu den Aniztasuna kontuan hartu ote den Irakurketa erraza kontuan hartu ote den	
49. Erantzun publikoa emateko protokoloa landu, mugimendu feministarekin koordinatuta eta adostuta.							Gizarte Zerbitzuak	Protokolorik ote dagoen Zenbat salaketa-ekintza egin den	

10 programa: Indarkeria matxistaren inguruko sentsibilizazioa eta aurrezaintza.

10.1 helburua: Indarkeriarik gabeko jokamoldeak sustatu eta emakumeenganako jokaera indarkeriazkoak hobetu.									
EKINTZAK	URTEA					AURREKONTUA	SAIL	ERAKUSLEAK	
	20	21	22	23	24		ARDURADUNAK		
50. Gazteen artean indarkeria matxista aurrezaintzeko eta horretaz sentsibilizatzeko ekintzak garatu.							Gazteria, Gizarte Zerbitzuak	Ekintza kopurua eta parte-hartzea sexuaren arabera	
51. Beste diagnostiko bat egin segurtasunik gabeko gune publikoak identifikatzeko eta neurri zuzentzaileak garatu.							Hirigintza, Kirolak, Gizarte Zerbitzuak, Herritarren Segurtasuna	Zenbat segurtasunik gabeko gune aurkitu den Hobetutako gune segurtasunik gabeen kopurua Gune seguruen kopurua kiroldegietan	
52. Azaroaren 25a dela eta, erakundeak antolatzen duen programazioa antolatu eta bertan parte hartu.							Gizarte Zerbitzuak	Ekintza kopurua eta parte-hartzea, sexuaren arabera Parte hartu duten gizarte eragileen kopurua	
53. Urtero egin jaietan edo asteburuetan indarkeria matxista aurrezaintzeko kanpainak.							Kultura eta Gizarte Zerbitzuak, Herritarren Segurtasuna	Ekintza kopurua eta parte-hartzea, sexuaren arabera	

6. PLANAREN KUDEAKETA, JARRAIPENA ETA EBALUAZIOA

Koordinazioa eta programazioa

Emakume eta gizonen arteko berdintasunerako 4/2005 Legearen 10. artikulua arabera, foru eta tokiko administrazioek, autoeraketarako dituzten eskumenen esparruan, egiturak egokitu behar dituzte administrazio horietako bakoitzean gutxienez erakunde, organo edo unitate administratibo bat egon dadin, bakoitzaren jarduerarako lurralde-organoetan emakume eta gizonen arteko berdintasunerako politikak bultzatzeaz, programatzeaz, ebaluatzeaz eta horiei buruz aholkatzeaz arduratzeko.

Plan horren jardueren programatik eratorritako helburuak eta ekintzak erdiesteko, beharrezkoa da berorren sustapeneko, jarraipeneko eta ebaluazioko egiturak izatea. Sustapenerako egitura Gizarte Ongizate Sailean dago eta hiru lagun ditu osakide: politika-arduradun bat, teknikaz arduratzen den beste bat eta berdintasun-teknikari bat lanaldi osoarekin.

Berdintasun-teknikariaren zereginak honako hauek dira:

- a) Berdintasunaren alorrean programak eta plangintzak diseinatzea, bai eta horiei dagozkien jarraipen- eta ebaluazio-mekanismoak ere.
- b) Ekintza positiboko berariazko neurriak diseinatzea eta sustatzea.
- c) Bakoitzak bere administrazioaren politika, programa eta ekintza guztietan genero-ikuspegia txertatzeko sustapen-lana bultzatzea, maila eta fase guztietan.
- d) Bakoitzak bere administraziooko sailei eta beren mendeen dauden gainerako erakunde eta organoei emakumeen eta gizonen berdintasunari buruzko aholkua ematea eta lankidetzan aritzea.
- e) Bakoitzari dagokion lurralde-eremuan bizi diren herritarrentzat sentsibilizazio-jarduerak egitea emakumeen eta gizonen desberdintasun-egoeraz eta berdintasuna sustatzeko abiarazi behar diren neurriez jabe daitezen, bereizkeria anizkoitzeko egoerak aintzat hartuta.
- f) Bakoitzak bere administrazioan berariazko programak edo zerbitzuak egokitze eta sortzeko proposamenak eta sustapen-lana egitea, bereizkeria anizkoitza jasaten duten emakumeek oinarritzko gizarte-eskubideak izango dituztela bermatzeko.

g) Emakumeei eta gizonei bizimodu pertsonala, familiakoa eta lanekoa uztartzen laguntzeko gizarte-baliabideak eta zerbitzuak sortu eta egokitu daitezen proposamenak eta sustapen-lana egitea.

h) Bakoitzaren lurralde-eremuan gertatzen diren bereizkeria-egoerei antzematea eta egoera horiek errotik desagerrarazteko neurriak diseinatzea eta sustatzea.

i) Erakunde publiko zein pribatuekin harremanak finkatzea eta parte-hartze eta lankidetzarako bideak ezartzea, baldin eta erakundeon xedeek edo eginkizunek emakumeen eta gizonen berdintasuna erdiesten laguntzen badute.

j) Bakoitzaren administrazioari atxikitako langileek emakumeen eta gizonen berdintasunaren arloan dituzten trebakuntza-beharrianak diagnostikatzea eta kasu bakoitzean behar den trebakuntza mota eta trebakuntza hori jasotzeko irizpideak eta lehentasunak proposatzea.

k) Emakumeen eta gizonen berdintasunaren arloan eskumenak dituzten erakunde, organo eta unitateekin eta bereziki Emakunderekin solaskidetza izatea.

l) Legean jasotzen den edo beren eskumen-eremuan agindu dakizkiekeen beste edozein eginkizun betetzea.

Bestalde, berdintasun planaren koordinazio eta segimendurako egitura Berdintasun Batzorde Mistoak, hau da, Portugaleteko Udaleko aholkularitza organo parte-hartzaileak, osatzen du; bertan lan egiten dute teknikariek, politikariek eta udalerriko gizarte-eragileek eta elkarteek ordezkariek. Ikusi egin da komenigarria dela hausnarketa-prozesuari ekitea eta batzordearen zereginak eta arautegia birdefinitzea, gaur eguneko beharrazanei erantzun egokia eman ahal izateko.

Sustapen egiturak aldiro egingo ditu bilerak, bidezko jarduketak planifikatu eta abian jartzeko.

Bestetik, indartu egingo da udal sail guztien parte hartzea Berdintasun Batzorde Mistoan eta Udalaren Gobernu Batzordeak gai bakarreko saioak egingo ditu Berdintasun Plana lantzeko, urteko Kudeaketa Planaren kontrastea egiteko eta urteroko ebaluazioa egiteko.

Gainera, Udalak jarraituko du parte hartzen erakunde arteko koordinaziorako egituretan; Berdintasunaren, kasu.

Azkenik, V. Plan honen programazioa zehazteko, urtero landuko dira kudeaketa planak aurreko urteko azken hiru hilabeteetan.

Planaren ebaluazioa eta jarraipena egiteko sistema

Plana ebaluatzen taldea sortuta, sei hilabetean behin kudeaketa planen jarraipena egingo du eta erakusleak jasoko ditu.

Berdintasun Plana sei hilabetean behin ebaluatuko da eta, horretaz gain, urteko oroitzapenak ere egingo dira.

Ebaluazioa hainbat mailatan egingo da:

- Prestatze mailako ebaluazioa: jarraipen kuantitatiboa egingo da, kudeaketa planaren arabera, honako aldagai hauek kontuan hartuta:
 - Jarduketa egin da
 - Partzialki egin da
 - Ez da egin
 - Egin da, baina ez da planifikatu
 - Arrazoiak
- Prozesuaren ebaluazioa: ikertu egingo da zen diren gune indartsuak eta hobetzekoak eta, horretarako, galdetu egingo zaie teknikari, politikari eta gizarte eragile parte-hartzaileei. Arlo hauek batez ere ikertuko dira: inplikazioa, lan tresnak eta koordinazioa, komunikazioa, parte hartzeko prozesuak eta abar.
- Eraginaren ebaluazioa: aztertu egingo da zer-nolako eragina duten berdintasun politikek eta emakume eta gizonen berdintasun eremuan egindako aurrerapenak neurtu egingo dira.

Bestetik, bete egingo da planaren jarraipenerako galdetegi elektronikoa, halaxe eskatzen baitu Emakundek urte oro, ebaluazioari begira. Prozesua eta eragina ebaluatzen, berriz, galdetegiak, elkarrizketak eta abarrak erabiliko dira.

Udal aurrekontua

V. Berdintasun Plan hau garatuko den lau urteotako aurrekontuak 278.218,53 euro izango ditu gutxi gorabehera urtean. Dena den, asmoa da diru partida hori urterik urte handituz joatea.

Dirulaguntzak

Dirulaguntzak eskatuko zaizkio hala Eusko Jaurlaritzako nola Bizkaiko Foru Aldundiko hainbat saili (Kultura, Hezkuntza, Hirigintza...) jarduketak garatze aldera.